



Europako eskualdeak zehatz-mehatz

• Europako eskualdeen datuak

Eurostatek 2008ko Eskualde mailako Urtekarria argitaratu du. Argitalpenak Europar Batasuneko kide diren 27 estatuetako eta kide bihurtzeko hautagai diren 3 herrialdeetako (Kroazia, Mazedoniako Jugoslavia Errepublikak ohia eta Turkia) 271 eskualdeen aldaketa ekonomikoen, sozialen eta demografikoen ikuspegi orokorra biltzen du.

Argitalpena hamahiru kapitulutan dago egituratuta eta, besteak beste, gai hauek lantzen dituzte: biztanleria, hiri estatistikak, BPG, etxeetako egoera ekonomikoa, sektoreak eta enpresak, lan-merkatua, produktibitatea, laneko kostua, zientzia, teknologia eta berrikuntza, garraioak, turismoa, osasuna eta nekazaritza.

Jarraian, intereseko hiru adierazle agertzen dira Euskadiko eta Gipuzkoako ikuspegia aintzat hartuta eta haien egoera aztertuko dugu Europako eskualdeen testuinguruaren baitan. Hauek dira adierazle horiek:

- Dinamismo demografikoa
- Enpleguaren intentsitate teknologikoa
- Biztanleak kontuan hartuta, Interneten erabilera

Las regiones europeas al detalle

• Los datos de las regiones europeas

Eurostat ha publicado el Anuario Regional 2008 que presenta una visión global de los cambios económicos, sociales y demográficos de las 271 regiones de los 27 Estados miembros de la Unión Europea, así como de los tres países candidatos (Croacia, Antigua República yugoslava de Macedonia y Turquía) y de los cuatro países miembros de la EFTA (Islandia, Liechtenstein, Noruega y Suiza).

La publicación se estructura en trece capítulos en los que se abordan aspectos tales como la población, estadísticas urbanas, el PIB, la situación económica de los hogares, los sectores y las empresas, el mercado de trabajo, la productividad, el coste laboral, la ciencia, tecnología e innovación, los transportes, el turismo, la sanidad y la agricultura.

A continuación se presentan tres indicadores de interés, desde la perspectiva del País Vasco y de Gipuzkoa y se examina su situación en el contexto de las regiones europeas. Estos indicadores son los siguientes:

- El dinamismo demográfico
- La intensidad tecnológica del empleo
- La utilización de Internet por la población





• Dinamismo demografikoa: Gipuzkoa eskualdeetako batez bestekoa baino apur bat beherago dago

EB-27k % 0,34ko urteko igoera izan zuen hamarkada honetako lehen erdian. Europako eskualdeen % 69k biztanleriaren igoera izan zuen; aldiz, gainerako % 31etan jaitsi egin zen biztanle kopurua.

Europako eskualdeen artean, nabarmendu beharrek da Espainiako eskualdeek, Frantziako Guyane eskualdeak, Herbeheretako Flevelandek, Irlandako Border, Midland and Westernek eta Portugalgo Algarve eskualdeek izan zuten aurrerapena.

Horrez gain, kide diren estatuen bi herenetan biztanleria handitu egin zen, eta heren baten kasuan, gutxitu. Biztanle kopurua gutxitu egin zen bederatzi estatu horiek Ekialdeko Europako herrialdeak dira; izan ere, hamar herrialdek osatzen duten talde horretan, populazioa Eslovenian soilik handitu zen.

Dinamismo demografikoa Irlandan, Zipren, Espainian eta Maltan bildu zen. Era berean, Batauneko erdialdeko herrialdeen kasuan (eta neurri handia dutenetan), batez bestekoaren inguruan hazi ziren.


• El dinamismo demográfico: Gipuzkoa ligeramente por debajo de la media de las regiones

La UE-27 registró un crecimiento anual del 0,34% en la primera mitad de la presente década. El 69% de las regiones europeas registró un aumento de población, en tanto que el 31% restante vio descender su número de habitantes.

Entre las regiones europeas destaca el avance de las regiones españolas junto con la región francesa de Guyane, la holandesa de Flevoland, la irlandesa de Border, Midland and Western y la portuguesa de Algarve.

Asimismo dos terceras partes de los Estados miembros aumentaron su población y la tercera parte la redujo. Los nueve Estados en los que descendió la población se corresponden con los países de la Europa del Este, de este grupo de diez países, únicamente aumentó la población en Eslovenia.

El dinamismo demográfico se concentró en Irlanda, Chipre, España y Malta, en tanto que los países centrales de la Unión (y los de mayor dimensión) aumentaron en torno a la media.





Euskadi 109. postuan dago dinamismo demografikoari dagokionez informazioa eskuragarri dugun 263 eskualderen artean. Euskadiko egoera Batasuneko batez bestekoa baino apur bat baxuagoa izan zen; hau da, eskualdeen % 59 gainditu zituen.

Gipuzkoaren egoera Euskadikoaren oso antzekoa da; izan ere, aldi horretan, Gipuzkoako hazkunde demografikoa komunitate osoko batez bestekoa baino apur bat txikiagoa izan zen.

El País Vasco se sitúa en la posición 109 por su dinamismo demográfico entre las 263 regiones para las que se dispone de información, es decir, supera al 59% de las regiones, aunque con un crecimiento ligeramente inferior a la media de la Unión.

La posición de Gipuzkoa es muy similar a la del País Vasco, dado que en dicho periodo el crecimiento demográfico fue ligeramente inferior a la media de la comunidad.

Biztanleriaren igoera Crecimiento de la población	
(urteko batez bestekoaren % 2000-2005 aldian)	(% medio anual en el periodo 2000-2005)
EB-27/UE-27	0,34
Hazkunde handiena izan zuten 10 eskualdeak (%tan) 10 regiones con mayor crecimiento (en %)	
• Guyane (FR)	3,99
• Illes Balers (ES)	3,10
• Flevoland (NL)	2,90
• Canarias (ES)	2,60
• Región de Murcia (ES)	2,52
• Comunidad Valenciana (ES)	2,41
• Comunidad de Madrid (ES)	2,34
• Border, Midland and Western (IE)	1,97
• La Rioja (ES)	1,90
• Algarve (PT)	1,83
Hazkunde handiena izan zuten 3 estatuak (%) 3 Estados con mayor crecimiento (%)	
• Irlanda (IE)	1,75
• Chipre (CY)	1,64
• España (ES)	1,49
• País Vasco	0,32

Iturria: Eurostat eta bertan eginda

Fuente: Eurostat y elaboración propia

• **Enplegua goi teknologiko sektoreetan: Gipuzkoak eskualdeen batez bestekoa gainditu du**

Goi teknologiko sektoreetako enpleguak Batasuneko guztizko enpleguaren % 4,4 osatzen du. Goi teknologiko edo puntako teknologiko sektoretzat hartu ohi dira Eurostaten azterketa egiteko telekomunikazioen zerbitzuak, informatikako eta ikerkuntzako jarduerak eta makinaren, komunikazio-ekipamenduen, irratien eta telebistaren industria-sektoreak eta medikuntzako tresnak, doitasunekoak, optikakoak eta erloju-gintzakoak egiten dituztenak. Beste sektore batzuk, industria farmazeutikoa eta aeronautikako edo espazioko eraikuntza, esate baterako, ez dira agertzen Eurostaten eskualde mailako azterketan (seguru asko, estatistiketan banakatzeko zailak direlako).

Guztizko enpleguari dagokionez, goi teknolo-

• **El empleo en sectores de alta tecnología: Gipuzkoa supera la media de las regiones**

El empleo en los sectores de alta tecnología representa el 4,4% del empleo total de la Unión. Como sectores de alta tecnología se consideran, a efectos del análisis de Eurostat, los servicios de telecomunicaciones, actividades informáticas e investigación y los sectores industriales de maquinaria, equipamientos de comunicaciones, radio y TV y fabricación de instrumentos médicos, de precisión, óptica y relojería. Otros sectores como la industria farmacéutica o la construcción aeronáutica y espacial no son incluidos en el análisis regional de Eurostat (como consecuencia posiblemente de su dificultad de desglose estadístico).

Dos regiones europeas más que duplican la media comunitaria en la aportación del empleo



giako sektoreetan enpleguari egindako ekarpenean komunitateko batez bestekoa bikoizten duten Europako beste bi eskualde ere badaude. Eskualde horiek Britainia Handiko Berkshire, Bucks and Oxfordshire eta Suediako Stockholm eskualdea dira.

Era berean, sektore horien presentzia handiena duten hamar eskualdeen artean, Erresuma Batuko hiru, Alemaniako bi eta jarraian agertzen diren estatuetako bana daude: Suedia, Hungaria, Finlandia, Danimarka eta Txekiar Errepublikak.

Sektore horien presentzia handieneko estatuak (guztizko enpleguan egiten duten ekarpenari dagokionez) hauek dira ordenan: Finlandia, Irlanda eta Suedia; azken lekuetan daudenak, aldiz, Errumania, Portugal eta Grezia dira.

Informazioa eskuragarri dugun Europako 243 eskualdeen artean, Euskadi 93. postuan dago eta goi teknologiko sektoreek % 4,6ko partaidetza dute guztizko enpleguan. Beste nolabait esanda, Batasuneko eskualdeen % 62 gainditzen ditu.

Gipuzkoari dagokionez, Euskadiko batez bestekoa gutxi gorabehera % 2n gainditzen duela esan dezakegu. Hori dela eta, Batasuneko batez bestekoaren gainean dagoela esan dezakegu argi eta garbi.


en sectores de alta tecnología al empleo total. Estas regiones son la británica de Berkshire, Bucks and Oxfordshire y la región sueca de Stockholm.

Asimismo entre las diez regiones con mayor presencia de estos sectores se encuentran tres del Reino Unido, dos de Alemania y una perteneciente a cada uno de los siguientes Estados: Suecia, Hungría, Finlandia, Dinamarca y República Checa.

Los Estados con una mayor presencia de estos sectores, en términos de su aportación al empleo total son, por este orden, Finlandia, Irlanda y Suecia y los que se sitúan en las últimas posiciones Rumania, Portugal y Grecia.

El País Vasco se sitúa en el lugar 93 entre las 243 regiones europeas de las que se dispone información con una participación del 4,6% de los sectores denominados de alta tecnología en el empleo total. Por tanto, supera al 62% de las regiones de la Unión.

Por lo que se refiere a Gipuzkoa puede estimarse que supera a la media del País Vasco en aproximadamente dos décimas porcentuales, por lo que se sitúa claramente por encima de la media de la Unión.





Enplegua goi teknologiako sektoreetan
Empleo en sectores de alta tecnología

(guztizko enpleguarekiko %)	(% sobre empleo total)
EB-27 / UE-27	4,40
Enplegu tasa handieneko 10 eskualdeak (%tan) 10 regiones con mayor empleo (en %)	
• Berkshire, Bucks and Oxfordshire (UK)	10,70
• Stockholm (SE)	9,28
• Hampshire and Isle of Wight (UK)	8,46
• Bedfordshire, Hertfordshire (UK)	8,35
• Közép-Magyarország (HU)	8,16
• Etelä-Suomi (FI)	8,14
• Oberpfalz (DE)	8,14
• Oberbayern (DE)	8,13
• Hovedstaden (DK)	7,82
• Praha (CZ)	7,74
Enplegu-tasa handieneko 3 estatuak (%) 3 Estados con mayor empleo (%)	
• Finlandia	6,71
• Irlanda	6,20
• Suecia	5,93
País Vasco	4,60

Iturria: Eurostat eta bertan eginda (2007)

Fuente: Eurostat y elaboración propia (2007).

Internet maiztasunez erabiltzen duten pertsonak: Gipuzkoa Batasuneko batez beste-koarekin bat dator

Batasuneko biztanleen % 51 maiz sartu ohi dira Interneten. Europako eskualdeen artean, bereziki nabarmendu beharrekoa da Finlandiako Aland eskualdea; izan ere, bertako biztanleen % 93 dira ohiko erabiltzaileak. Horren ondoren, Herbehere-tako eskualde gehienak agertzen dira eta horien artean, bereziki, hauek: Utrecht eta Zeeland.

Kide diren estatuei dagokienez, nabarmendu beharrekoak dira Herbehereak, Danimarka, Finlandia eta Suedia; izan ere, herrialde horien kasuan, biztanleen % 75 baino gehiago sartu ohi dira Interneten maiztasunez.

Euskadi batez bestekoa baino apur bat beherago dago; izan ere, biztanleen % 46 dira ohiko erabiltzaileak. Ehuneko hori ikusita, zehaztutako informazioa eskuragarri dugun 142 eskualdeen artean, 78. postuan dagoela esan dezakegu (eskualde horiek Batasuneko kide diren 12 estatuetakoak dira). Beste nolabait esanda, aipatutako Europako eskualdeen % 45 gainditu ditu.

Gipuzkoaren kasuan, 2007. urteko ehuneko % 46koa zen; dena den, 2008ko lehen seihilekoan % 52ra iritsi zen eta, hori ikusita, beraz, esan genezake Batasuneko batez beste-koarekin berehala egingo duela bat.

Personas usuarias habituales de Internet: Gipuzkoa converge con la media de la Unión

El 51% de la población de la Unión accede habitualmente a Internet. Entre las regiones europeas destaca la finlandesa de Aland con el 93% de la población usuaria habitual y a continuación se sitúan la mayoría de las regiones holandesas entre las que destacan las de Utrecht y Zeeland.

Por lo que respecta a los Estados miembros, destacan Holanda, Dinamarca, Finlandia y Suecia, todos ellos alcanzan o superan el 75% de su población con acceso habitual.

El País Vasco se sitúa ligeramente por debajo de la media, con el 46% de población usuaria habitual. Este porcentaje le sitúa en la posición 78 de las 142 regiones para las que se dispone de información desagregada (pertenecientes a 12 Estados miembros). Por tanto supera al 45% de las regiones europeas mencionadas.

En Gipuzkoa el porcentaje en el año 2007 era asimismo del 46%, aunque en el primer semestre de 2008 ya ha alcanzado el 52%, pudiendo en este sentido decirse que avanza aceleradamente en la convergencia con la media de la Unión.



Internet maiztasunez erabiltzen duten pertsonak
Personas usuarias habituales de Internet

(16 eta 74 urte arteko biztanleen %, gutxienez (% de población de 16 a 74 años, con acceso al menos
astean behin sartzen direnak) una vez a la semana)

EB-27 / UE-27	51
Erabilera handieneko estatuak eta eskualdeak (%) / Estados y regiones con mayor uso (%)	
• Herbehereak / Holanda	81
• Utrecht	85
• Zeeland	85
• Danimarka / Dinamarca	76
• Finlandia	75
• Aland	93
• Etelä-Suomi	78
• Suedia	75
• Luxenburgo / Luxemburgo	72
• Erresuma Batua / Reino Unido	65
• Essex	76
• Leicestershire, Rutland and Northants	76
• Alemania	64
• Berlin	70
• Bremen	70
• País Vasco	46
• Gipuzkoa	46

Iturria: Eurostat eta bertan eginda (2007)

Fuente: Eurostat y elaboración propia (2007).

Informazio gehiago:

Más información:

http://epp.eurostat.ec.europa.eu/portal/page?_pageid=1073,46587259&_dad=portal&_schema=PORTAL&p_product_code=KS-HA-08-001